

## PRETSA-OHARRA

# Teknikerrek metalezko egiturak fabrikatzeko 3 metro baino gehiagoko 3D inprimagailu bat erakutsiko du BIEMH 2024an

- *Zentro teknologikoak eskakizun handiko sektoreetarako geometria konplexuen osagaiak ekoizteko prestazio bakarrak dituen makina bat erakutsiko du nazioarteko azokan, ekainaren 3tik 7ra*
- *Teknikerrek diseinatu eta garatu du oso-osorik, eta energia hari metaliko gisa zuzenean ezartzean datzan teknika erabiltzen du ekipamenduak*
- *Standa 1. pabiloiko E15 korridorean dago, eta robotika kolaboratiboko zelula bat eta gainazal-estaldura eta -tratamendu desberdinak dituzten piezak izango ditu*

[Eibar, 2024ko maiatzak 16] – **Tekniker** zentro teknologikoa, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) zentroko kidea, Makina-Erremintaren Nazioarteko Biurtekoaren (BIEMH) protagonista izango da berriz ere, bere I+G arlo nagusien azken berrikuntzak ezagutaraziz, hala nola fabrikazio aurreratua, gainazalak eta ekoizpenerako IKTak.

Ekainaren 3tik 7ra Barakaldoko (Bizkaia) BECen egingo den edizio berrian, zentro teknologikoak elementu protagonista baten inguruan jarriko du arreta: TITAN makina, 3D inprimagailu handi bat, 6100 mm x 3100 mm x 3420 mm-ko neurriak dituena. Azokaren standean altxatuko da eta tamaina handiko metalezko egiturak eta geometria konplexukoak fabrikatzea du helburu.

Horretarako, Teknikerrek diseinatu eta garatutako ekipamenduak laser teknologia erabiltzen du, eta, zehazkiago, DED (Direct Energy Deposition) izeneko ekoizpen-teknika, hau da, energia hari metaliko gisa zuzenean ezartzea.

Gainera, atmosfera kontrolatuko kabina bat du, ingurumen-baldintza desberdinak simulatzeko aukera ematen duena; beraz, interes berezia du muturreko klimetan lan egiten duten sektoreentzat, hala nola aeronautikoan, ontzigintzan edo espazialean.

"TITAN fabrikazio gehigarriko ekipamendu berritzailea da, eta Teknikerrek garatu du oso-osorik. Horri esker, pieza handiak gara ditzakegu, aleazio metaliko desberdinekin eta muturreko baldintzetara egokituta. Adibide gisa, suziri espazialen motorrentzako tobera bat erakutsiko dugu azokan, makinan egiten ari garena, Marte planetaren ingurumen-baldintzak simulatuz", azaldu du Carlos Soriano Teknikerreko ikertzaileak.

Zentro teknologikoko standera joaten direnek, makinarekin batera, hari metaliko bidez DED teknikarekin fabrikatutako osagai batzuk ikusi ahal izango dituzte, helize edo esfera formako piezak ekoizteko gaitasun paregabeak egiaztatzeko.

## **Robotika kolaboratiboa eta gainazalak**

BIEMH 2024an zehar, Teknikerrek "bin picking" prozesu bat egingo duen robotika zelula kolaboratibo eta malgu bat ere erakutsiko du bere erakustokian. Robotak guztiz desordenatutako piezak jasoko ditu albo batean dagoen karga-erretilu batean, eta, pieza horiek detektatu ondoren, modu ordenatuan eta ahalik eta juntuen jarriko ditu irteera-eremuan.

Soluzioak Teknikerrek garatutako hainbat teknologia biltzen ditu, edozein ekoizpen-inguruetan pertsona-robot elkarreragina modu naturalean sustatzeko. Nabarmentzekoak dira SmartPicking softwarea, robota pieza zuzenak 3D ikusmenaren bidez identifikatzera bideratzen duena; eta "Proximity Detector" softwarea, operadoreekiko distantzia zehazten duena, haien segurtasuna bermatzeko.

Erakusleak errealitate areagotuko HoloLens betaurreko batzuk ere izango ditu. Betaurreko horiek robotaren lan-ingurunea simulatuko dute, eta robota nola mugitzen den ikusteko eta fisikoki haren proiektzioarekin alderatzeko aukera emango dute, digital twin edo biki digitalaren teknologia erabiliz.

Teknikerrek BIEMHen aurkeztutako soluzioen katalogoa gainazaletan eta materialetan dituen gaitasunek osatuko dute, hari metalikoa duen DED teknikaren bidez fabrikatutako piezen bidez, materialean gainazaleko akaberak erakutsiko dituztenak. Era berean, material triboelektriko aurreratuen garapena erakutsiko du, errendimendu tribologiko, mekaniko eta energia sortzeko dentsitate bikainaren konbinazioarekin.

## Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago:

**GUK** ► Unai Macias  
[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) / Tel. 690 212 067